



10 GUNEA. SOPELAKO ESTRATUAK. PUNTO 10. ESTRATOS DE SOPELANA

BALORAZIOA

Interesa: Didaktikoa eta zientifikoa.
Kategoria: Eskualde mailakoa.
Kontserbazioa: Ona.
Antzeko beste gune batzuk: Zumaiako flysch-a, sedimentazio-mota honetako adibidea, mundu guztian ezaguna.
Irispidea: Sopelako hondartzan daude.
Bilbo-Plentzia errepidez iristen da.



VALORACION

Interés: Didáctico y científico.
Categoría: Regional.
Conservación: Buena.
Otros puntos semejantes: Corte de Zumaia, ejemplo mundial de sedimentación flysch.
Accesos: Se sitúan en la playa de Sopelana. Se accede por la carretera Bilbao-Plentzia.




Estratuak kostaleroarekin elkarzut daude, okermendu nahiko handiarekin. Seriearen adina geroz eta berriagoa da E-tik W-ra doan arabera, baina azkenik haustura bat dator eta haren ondorengo material-ezkatak hasierakoan adin bera dauka. Hortik pentsa zein konplexua den zona honen egitura tektonikoa. Hasieran daude Goi-Kretazikoko kareki-margak (Maastrichtiarra), organismo-arrasto ugari dutenak. Ondoren Tertziarioko margo-karriak eta marga grisak datoz, azkenean «Daniarreko karri arrosak» daudelarik. Geroago badago tarte bat karriak eta margo-karriak txandakaturik, eta failara iristean berriz ere Goi-Kretazikoko materialak berragertzen dira.

Ezkata kretazikoa agerterazten duen hausturaz gainera badaude beste faila gehiago, eta batzuk eskualde mailako garrantzia dutenak. Hauetako bat, hondartzaren E-ko herenean dago, eta bertan Trias Keuper-ekoak omen diren buztin gorritzen azaleramendua dago, izan ere material hauek stratigrafikoki hondartzakoak baina askoz beherago bait daude. Sopelako eta Meñakoxeko hondartzak banatzen dituen harkaitz-irtena, Peñon deiturikoa eta gainean aparkaleku bat egin diotena segida stratigrafiko orokorarekin jarrera anormalean aurkitzen da, faila desberdinen eraginez. Tolestura txiki batzuk ere nabaritzen dira.

Gomendio soil bakarra: ez hasi estratuetako fosilak eta arrastoak hartzen. Harritik apartatuta ez daukate inolako baliorik.

ATXIBIRIBIL ETA ARRIETARA
HONDARTZETAKO
HARKATIZ-LABARRAREN
EBAKIDURA ETA ZONAZIOA
(ZONAZIOA FOSIL KARAKTERISKOEN
ARABERA EGINDA)



CORTE Y ZONACION DEL
ACANTILADO DE LAS PLAYAS DE
ATXIBIRIBIL Y ARRIETARA (LA
ZONACION ESTA REALIZADA EN FUNCION
DE LOS FOSILES CARACTERISTICOS)

Los estratos aparecen perpendiculares a la línea de costa, con un buzamiento muy acentuado. La serie es de edad cada vez más joven de E a W, hasta una fractura que da paso a una escama de materiales de la misma edad que los iniciales. Esto da una idea de la complejidad tectónica de la zona. Se inicia con margas calcáreas del Cretácico Superior (Maastrichtiense), en las que aparecen gran cantidad de huellas de organismos. Les siguen margocalizas y margas grises del Terciario (Paleoceno), cuyo último término son las «calizas rosas del danés», aunque incluyen materiales más modernos. A continuación, aparece un tramo de calizas y margocalizas alternantes, hasta la falla que vuelve a dar paso a los materiales del Cretácico Superior.

Además de la fractura que hace aparecer la escama cretácica, existen otras fallas, algunas de importancia regional. Una de ellas, en el tercio E de la playa, permite el afloramiento de arcillas rojizas que se han atribuido al Trias Keuper, siendo así que estos materiales se hallan estratigráficamente muy por debajo de los que aparecen en la playa. El peñón, saliente rocoso que separa la playa de Sopelana de la de Meñacox y sobre el que se ha realizado un aparcamiento, se encuentra en una posición estratigráficamente anormal respecto a la secuencia general, debido a la acción de diversas fallas. También se observan algunos pequeños plegamientos.

Se recomienda no coger fósiles ni pistas de los que aparecen en los estratos, pues separados de la roca no poseen ninguna utilidad.